

DOS POEMAS INÉDITOS.

Reproducimos dos poemas inéditos de Xabin Olaskoaga, escritos en 1946, cuando el grupo Xey emprendía la aventura americana.



Sabin Olaskoaga en Donostia en 1988.

El 3 de abril de 1946 los componentes del Xey zarparon de Bilbao en el Monte Albertia rumbo a Buenos Aires. El 11 de abril fallecía en Rentería la madre de Sabin Olaskoaga. Él recibió en plena travesía la noticia, que le dejó moralmente hundido. En estas circunstancias escribió estos versos.

Xabin Olaskoaga

LAISTER ARTE

Tximista eta trumoi artean
eta odolez beteta
gurutz batean il omen zuten
gure Josu iltzatuta
Ostiral Santu arratsaldean.
ez daukagu ez aztuta!!
nolatan lurak eta mendiyak
geldi ziran apurtuta,
bere arnasa amaitu zan lez
etorri zan eriotza
orduban bere ama laztanak
jaso zun bere gorputza
esan anayak bere amatxok
nolatan zeukan biotza
ikusirikan bere besotan
semea ilik eta otza!!
Aste santuba, aste donea,
aste samingarriyena!!
santa sekulan bizi naizeño
nik astuko ez dutena
itxas barruban! lurrez urruti
nere biyotzak du pena
ludiko urre guztiyak ere
sendatuko ez lukena
nun zaude, Ama, amatxo ona;
esan zaidazu, nun zaude?
neri azkeneko laztan ona
eman gabe jun zerade
zu illobira! ni urrutira!
Jaunan nayak badirade
zai egongo naiz bere deyari
noiz bait ikusko gerade.
Negarrez nago gau eta egun
negarrez itxas ontziyan!!
Zutaz pentsatzen nere otoitzak
dijoaz itxas erdiyan
utzune ona utzi dezu bai.
Amatxo! gure sendiyan
sigur nago bai, arki zerala
zeruban erdi erdiyan
Azken agurra, ama laztana
ez dakit nik nola bete
ludi ontatik beste ludira
bialdu nai nolabait
barka nazazu biziya ontan
egin badizut nik, kalte
gaztetandikan zu neretzako
izan zera, ama maite!
Ama on on bat eta sekulan
ez naiz astuko il arte
eta iltzean, nere ezurak
zure onduban badagoste
pozik ilko naiz! agur, amatxo!
agur, agur! Laister arte!!

Sabin

El capitán del Monte Albertia se llamaba Capitán Libano. Tocaba muy bien el piano. Se celebró una misa de funeral por la madre de Sabin Olaskoaga en el barco y el Capitán Libano acompañó al piano a los cantores. Además dijo unas palabras de mucho consuelo para Sabin Olaskoaga. Durante toda la travesía tuvo unas atenciones especiales para los Xey.

GURE AITA

I

Aita Libano, Albertia Mendi bi izen zoragarriyak
izen oyeri zenbat zor diyon!! ez daki Euzkal-Erriyak
gizon jakintzu eta oberik, maitatzen dute guziyak
umore ona eta alaya! danak ditu berexiyak.

II

Berrogei urte inguru dira dabillega itxasoan
Euzkal Erritik Amerikaruntz, egun ta gau osoan
bere onduban dijoaztenak poza dute biotzean
dakitelako, zaindari on bat dagola itxas ontziyan

III

Buru zuri dun gizon jatorra! benetako Euzkalduna
ilea bezin garbiya dezu, oraindik jakintasuna.
Entzun zayozu gazte oneri! orain esan nai dizuna
zutaz sekulan ez naiz astuko! maite zaitut! Aita ona!

IV

Nere buruko pentzamentubak danak dijoaz batuta
gogoratubaz. Aita Libano!! daukagula gaur poztuta
bere semeak bagiñaken lez daukagu gugan artuta
gure aitatxo, zerade beti, gaurtandik izendatuta! bai, bai!
argaitik. Gora Aita Libano!! Biotzez besarkatuta.

Albertia Mendi Itxas ontziyan Jorrailaren 17-an Jorraila eta
1946-go urtean
Olaskoagatar Sabin